

LAN-POLTSETARAKO PROBEN OINARRIAK EITBNET

“Eduki Digitalen teknikariak”

2020-2021



XEDEA

Aldi baterako langileak lan-poltsan sartzea arautzen duen erregulazioak bi helburu ditu:

- Erakundea sortzeko Legean jasota dauden eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ikuskatzen dituen publizitate- eta merezimendu-printzipioak bermatzea. Horretarako, EITBn kontratatzen diren aldi baterako langile guztientzako poltsa ordenatu bat ezarri behar da.
- Dagoen lan-poltsa zabaltzea, hautagai berriak barne, dauden beharrak asetzeko.

Hori dela eta, probak gaur egun kontratatuta dauden aldi baterako langileentzako eta kanpoko hautagaientzako xedatuta egongo dira.

SARRERA

Deialdi honen helburua lan-poltsa barematu bat eratzea da, EITBNET-eko "Eduki Digitalen teknikariak" aldi baterako kontratatzeko. Lan-poltsa horretatik ateratzen diren hautagaiak lehentasuna izango dute aldi baterako kontrataziorako, deialdiaren ondorioz duten azken ordenaren arabera, baina, betiere, lanpostu horietarako iraganean egindako edo etorkizunean egingo diren lan finkoko eskaintza publikoetatik eratorritako lehentasunezko lan-poltsetan agertzen direnen ondoren.

Lan-poltsaren deialdi honen emaitzak baliozkoak izango dira EITBNET enpresaren "Eduki Digitalen teknikari" lanpostuko aldi baterako kontratazio-beharrak asetzeko bakarrik, eta ez dute inolako ondoriorik izango plantillan finkotasuna eskuratzeko orduan.

Lan-poltsa honen baremazioa egiteko, horretarako egiten diren hautaprobeen emaitzak hartuko dira kontuan, oinarri hauetako *"Kontratazioa"* epigrafean ezarritako irizpideen arabera.

IRISMENA

1. Eduki Digitalen teknikariak

DEIALDIAREN ARGITALPENA

Deialdia eta egutegia EITBren webgunean argitaratuko dira (<https://www.eitb.eus/lanpoltsa> eta horren bidez kudeatuko dira hautagaien hautaketa-prozesuari buruz egiten zaizkien jakinarazpen guztiak.

DEIALDIAN IZENA EMATEKO PROZEDURA

Poltsarako probetan parte hartzeko beharrezkoa izango da:

- Hautagaitza behar bezala inskribatzea EUSKAL IRRATI TELEBISTA erakunde publikoaren webgune korporatiboko formularioaren bidez (<https://www.eitb.eus/lanpoltsa>), oinarrietan deskribatutako baldintzen arabera.
- Dagokion dokumentazioa bidaltzea posta ziurtatu bidez honako helbide honetara:

**Norentzat: Hautaketa Saila,
EITB Egoitza
Basurtuko Kaputxinoen kalea, 2
48013 Bilbo, Bizkaia.**

Beste edozein bidetatik jasotako eskaerak ez dira onartuko. Halaber, baztertu egingo dira oinarrietan eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten hautagaitzak. Betekizunak deialdiaren argitalpen-datan bete beharko dira.

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 30ean hasiko da eta 2020ko abenduaren 14an amaituko da, bi egun horiek barne.

Izena eman ahal izateko, hautagaiak lan-poltsarako proben deialdi honetako oinarrietako baldintzak irakurri eta onartu behar ditu.

LANPOSTUAREN PROFILA

EITBNET-eko hitzarmen kolektiboaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eduki Digitalen teknikaria da edukiak behar bezala bilatu, landu eta tratatzen dituen profesionala, eta/edo, hala badagokio, horretarako beharrezkoak diren baliabide artistikoak, antolamendu-baliabideak, giza-baliabideak eta baliabide ekonomikoak

kudeatzen dituen, horiek behar bezala mantendu, eguneratu, itzuli eta euskarri egokian zabaltzen direla ziurtatuz.

Zehazkiago, adituak dira; webguneetarako eta testu, bideo, audio eta irudi formatuko beste euskarri batzuetarako eduki digitalak sortzen eta zabaltzen dituztenak, euskaraz zein gaztelaniaz; kontuan hartuta hedabidearen berezitasunak, edukien ezaugarriak eta sare sozialetan duten hedapena, horien inguruan komunitatea sortzeko xedearekin.

Hauek dira zeregin nagusiak: idatzizko nahiz ikus-entzunezko edukiak sortzea, editatzea, hedatzea eta dinamizatzea, euskaraz eta gaztelaniaz, hedabidera egokituz. Horretarako, edukien eta web-maketazioaren eta bideoak, audioa eta irudiak editatzeko programen kudeatzaileei dagozkien tresnak erabiliko dira.

PROBETARA AURKEZTU AHAL IZATEKO BALDINTZAK

1. Titulazio hauetakoren bat izatea eskatuko da:

- Kazetaritzako Gradua
- Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua
- Giza-zientzietako Gradua
- Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua
- Antzeko titulu homologatua

2. Euskararen Europako Erreferentzia Esparruko C1 edo edo hortik gorako titulua izatea eskatuko da. Nolanahi ere, Europako Erreferentzia Markoko C2 mailako proba gainditu beharko da, oinarri hauetan egin beharreko proben atalean deskribatzen den moduan.

3. B motako gidabaimena eduki beharko da.

4. Lortu nahi den lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezinak diren muga fisiko edo psikikorik ez izatea edo horren eraginpean ez egotea, hargatik eragotzi gabe desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan xedatuta dagoena. Horretarako, lan-poltsako probetatik ateratzen diren pertsonak nahitaezko mediku-azterketa gainditu beharko dute.

NAHITAEZ EGIN BEHARREKO PROBAK

Hautagaiak proba teoriko eta praktiko hauek egin beharko dituzte nahitaez:

1. Hizkuntza-probak.

Lan-poltsara aurkezten den hautagaiak euskaraz zein gaztelaniaz duen hizkuntza-gaitasuna ebaluatuko da, eta hizkuntza bakoitzerako GAI edo EZ GAI kalifikazioa emango zaio. Proba horiek baztertzaileak izango dira (ez dira haztatuko, baina onartu egin beharko dira prozesuarekin jarraitzeko).

- **Euskara-proba.**

Europako Erreferentzia Esparruko C2 maila. Nahitaezko proba denez, hautagaiak ezingo du gainditu edo baliozkotu hizkuntza-titulu ofizial bat aurkeztuta; nahitaez egin behar da proba.

Proba GAI edo EZ-GAI gisa baloratuko da, proba egiteko ardura duen erakunde ofizialak ezarritako irizpideen arabera.

Era berean, poltsako proba hauetako hizkuntza-gaitasunaren ebaluazioan GAI lortzeak ez du esan nahi ofizialki homologatutako titulurik edo maila ofizialik egiaztatu denik.

Proba egin ondoren, behin-behineko emaitzak horretarako aurreikusitako webgunean argitaratuko dira (<https://www.eitb.eus/lanpoltsa>), eta hautagaiak 3 lan eguneko epea izango du egokitzen jotzen dituen erreklamazioak egiteko.

- **Gaztelania-proba.**

Europako Erreferentzia Esparruko C2 maila. Nahitaezko proba denez, hautagaiak ezingo du gainditu edo baliozkotu hizkuntza-titulu ofizial bat aurkeztuta; nahitaez egin behar da proba.

Proba GAI edo EZ-GAI gisa baloratuko da, proba egiteko ardura duen zentro ofizialak ezarritako irizpideen arabera.

Era berean, poltsako proba hauetako hizkuntza-gaitasunaren ebaluazioan GAI lortzeak ez du esan nahi ofizialki homologatutako titulurik edo maila ofizialik egiaztatu denik.

Proba egin ondoren, behin-behineko emaitzak horretarako aurreikusitako webgunean argitaratuko dira (<https://www.eitb.eus/lanpoltsa>), eta hautagaiak 3 lan eguneko epea izango du egokitzen jotzen dituen erreklamazioak egiteko.

2.Proba teorikoa.

Gehienez ere 30 puntu emango dira, proba egiteko ardua duen erakunde akademikoak ezarritako irizpideei jarraituz. Galderak (erantzun laburrekoak edo test motakoak) hiru bloketan banatuko dira:

1. **Gaurkotasuneko informazioa:** Gaurkotasuneko informazio orokorrari buruzko galderak sartuko dira (autonomia erkidegoko, estatuko eta nazioarteko politika, ekonomia, gizartea, kirola, kultura eta abar). Informazio-intereseko aldia deialdia argitaratzen denetik proba egiten den egunera artekoa izango da.
2. **Hedabideen eta EITB Taldearen inguruko ezagutza:** Atal honetan, antolaketari, ikus-entzuleei, emaitzei, akordioei, kolaborazioei, sariei, araudiari eta abarri buruzko galderak sartuko dira; bai eta estilo-liburuari buruzko berriak ere.
3. **Web-euskarrien inguruko ezagutza:** Webgunearen oinarrizko ezagutzei buruzko galderak sartuko dira, ziberkazetaritzako generoak, multimedia-lengoaia eta abar barne.

Erantzun zuzenek puntu bat emango dute; erantzun okerrekin, berriz, puntu herena (1/3) kenduko dute. Erantzun zuriak ez dira zenbatuko, baina aldi berean ez dute punturik kenduko.

Probak erreserbako galderen (gehirarrien) atala izango du, eta hautagaiak erantzun egin beharko du. Erantzun horiek ez dira zenbatuko puntuak batzeko, eta haien zeregin bakarria izango da baliogabetu eta ordeztu behar direla erabaki diren galdera(k) erreserba-ordenaren bidez ordezte.

Proba hori baztertzaila da, eta beharrezkoa da, gutxienez, haztatutako puntuen erdia lortzea (15/30) prozesuarekin jarraitzeko.

Proba egin ondoren, behin-behineko emaitzak horretarako aurreikusitako webgunean argitaratuko dira (<https://www.eitb.eus/lanpoltsa>), eta hautagaiak 3 lan eguneko epea izango du egokitzen jotzen dituen erreklamazioak egiteko.

3.Proba praktikoa.

Gehienez ere 70 puntu emango dira, proba egiteko ardua duen erakunde akademikoak ezarritako irizpideei jarraituz. Zenbait kasu praktikoko idatziz gauzatzea:

- **Albiste bat idaztea** euskaraz eta gaztelaniaz, teletipo edo prentsa-ohar batetik abiatuta, eta argitaratuko den hedabidearen ezaugarrietara egokitzea. Albiste hori idatzizko formatuan aurkeztuko da, eta gutxienez 300 hitz izango ditu.

Gehienez ere 40 punturen gainean haztatuko da, eta baztertzalea izango da. Gutxienez puntuen erdia lortu beharko da (20/40) gainerako proba praktikoak zuzendu eta baloratzeko.

Ebaluazio-irizpideek honako hauek jasoko dituzte: ortografia- eta gramatika-zuzenketa, EITBren estilo-liburura egokitzea, kazetaritza-garrantziaren irizpideak, eta multimedia-baliabideen erabilera egokia.

- **Bideo bat editatzea** ETBren irudiak erabiliz. Webgunean eskuragarri dagoen oinarrizko bideo-edizioko edozein tresna erabili ahal izango da (Premier, Final Cut, Edius, Vegas eta abar). Gehienez ere 10 puntu emango dira, ez da baztertzalea izango, eta ez da beharrezkoa izango gutxienerako puntuaziorik lortzea balorazioa jasotzeko.

Landugabeko irudien material bat eta testu bat emango dira, eta, horretarako, albiste labur baten irudiak muntatu beharko dira (1-2 minutu).

Ebaluazio-irizpideek honako hauek barne hartuko dituzte: planoen hautaketa, testuarekin duten egokitasuna, iraupena, trantsizioen eta muntaketaren egokitasuna, irudiaren argitasuna eta garbitasuna eta abar.

- Eusko Irratiko audioak erabiliz, euskarazko eta gaztelaniazko **audio bat editatu**. Horretarako, Audacity bezalako programak edo webgunean eskuragarri dauden oinarrizko edizioko beste programa batzuk erabiliko dira. Gehienez ere 10 puntu emango dira, ez da baztertzalea izango, eta ez da beharrezkoa izango gutxienerako puntuaziorik lortzea balorazioa jasotzeko.

Ebaluazio-irizpideek honako hauek jasoko dituzte: muntaketaren garbitasuna, ebaketen hautaketa eta hizkuntza ikus-entzunezko hizkerara zuzendu eta egokitzea.

- **Albiste sare sozialetatik nola zabalduko** den azaltzea. Gehienez ere 10 puntu emango dira, ez da baztertzalea izango, eta ez da beharrezkoa izango gutxienerako puntuaziorik lortzea balorazioa jasotzeko.

Albiste bat emango da, eta SEO hobeto kokatzeko behar diren metadatuak eta bestelako elementuak eskaini beharko dira. Edukia (testuaren zatia) Facebook, Twitter, Instagram eta Youtuben zabaltzeko egokitu beharko da.

Ebaluazio-irizpideek barne hartuko dute metadatuak kazetaritza-SEOra egokitzea eta testuak sare sozial bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea.

Proba egin ondoren, behin-behineko emaitzak horretarako aurreikusitako webgunean argitaratuko dira (<https://www.eitb.eus/lanpoltsa>), eta hautagaiak 3 lan eguneko epea izango du egokitzen jotzen dituen erreklamazioak egiteko.

BORONDATEZKO PROBAK: INGELES-PROBA

Europako Erreferentzia Esparruko B2 maila. Kasu horretan, B2 mailako edo hortik gorako titulu ofizialaren bidezko egiaztatzea zein horretarako egingo den proba gainditzea onartuko dira.

Proba GAI edo EZ-GAI gisa baloratuko da, proba egiteko ardua duen zentro ofizialak ezarritako irizpideen arabera. Hautagaia GAI bada, 5 puntu gehiago lortuko ditu gainerako proba teoriko eta praktikoan haztapenez gain, eta GAI ez bada, ez du puntu gehigarririk gehituko.

Era berean, poltsako proba hauetako hizkuntza-gaitasunaren ebaluazioan GAI lortzeak ez du esan nahi ofizialki homologatutako titulurik edo maila ofizialik egiaztatu denik.

Proba egin ondoren, behin-behineko emaitzak horretarako aurreikusitako webgunean argitaratuko dira (<https://www.eitb.eus/lanpoltsa>), eta hautagaiak 3 lan eguneko epea izango du egokitzen jotzen dituen erreklamazioak egiteko.

EMAITZAK

Egin beharreko proba guztiak amaituta, hautagaiak proba baztertzailak gainditu baditu, puntuazio osoa zenbatuko da. Emaitzak gehienez ere 100 punturen gainean baloratuko dira (30 puntu proba teorikoan eta 70 puntu proba praktikoan), eta, hala badagokio, borondatezko probari edo ingelesa egiaztatzeke tituluari dagozkion 5 puntu gehiago gehituko dira.

Proba osoa gaindituztat emango zaie probaren puntuazio osoaren erdia edo gehiago lortu duten hautagaiei, baldin eta berariaz hala eskatzen duen alderdi bakoitzean gutxieneko puntuazioa (erdia) lortu badute. Ingeleseko borondatezko proba alde batera utziko da, eta, hala badagokio, 5 puntu gehiago baino ez dizkie gehituko lehen adierazitako gehieneko 100 puntuei.

KONTRATAZIOA

Proba gainditzen dituzten izangaiak automatikoki sartuko dira edukien garapena egiten duten Eduki digitalen teknikaria izateko lanpostuaren lan-poltsa barematuan, beharrezko hurrenkeran, eskuratutako behin betiko emaitzei jarraikiz. Lan-poltsa aldi baterako kontratazio guztiak egiteko erabiliko da, modalitatea edozein izanda ere.

Barematutako lan-poltsa bakarra izango da, eta honako talde hauek osatuko dute, lehentasun-hurrenkera honetan:

1. Azken enplegu-deialdi publikoko taldea
2. Azken aurreko enplegu-deialdi publikoko taldea
3. Poltsarako azken probako taldea
4. Poltsarako azken aurreko probako taldea

Lehentasun-hurrenkera deialdiaren oinarrietan zehaztutako proba edo deialdietan lortutako notaren arabera izango da.

Beraz, proba hori gainditzen duten hautagaiak lan-poltsaren hirugarren taldean sartuko dira, eta lehentasuna izango dute enplegu publikoaren azken deialdian eta enplegu publikoaren azken-aurreko deialdian dagozkion probak gainditu edo gainditzen dituzten hautagaiak.

Lan-poltsa honen osaerak eta lehentasun-hurrenkerak gertakari hauetakoren bat gertatu arte egongo da indarrean:

- Etorkizuneko enplegu-deialdi publikoak
- Etorkizuneko lan-poltsetarako probak

Halaber, lan-poltsa horren zerrendak EITBren webgunean argitaratuta egongo dira, eta lan-poltsa osatzen duten pertsonak soilik sartu ahalko dira bertan.